

# EUSTAT - BJAko aldagai nagusien laburpena

## BALORAZIOA

Azken hiruhileko honetan hazi egin da okupazioa baina jaitsi langabezia, eta okupazioaren hazkundera langabeziaren jaitsiera baina handiagoa denez hazi egin da jarduera. Okupazioa gehiago hazi da emakumezkoen artean (%3,52) gizonezkoen artean baino (%1,69). Langabezia gehiago murriztu da emakumezkoen artean (-%11,95) gizonezkoen artean baino (-%5,84). Azken hiruhilekoan eraikuntza sektorean soilik izan da okupazioaren murrizketa; lehen sektorean, industrian eta zerbitzu sektorean, aldiz, hazi egin da. Lurralde historikoen arabera, hiru lurraldeetan hazi da okupazioa, eta langabezia murriztu. Langabezia tasa %10,14koa da; sexuen artean bereizketa nabari da (%9,47 gizonezkoen artean eta %10,87 emakumezkoen artean).

Urteko balantzeak erakusten du lan merkatuan 17.100 landun gehiago daudela, eta 7.800 langabe gutxiago. Hala ere, oraindik, 2008 urteko hirugarren hiruhilekoan baino 31.100 landun gutxiago daude, maximo historikoa; langabeak 70.600 geahigo dira data horretakoekin alderatuz.

Bizkaiak jarraitzen du egoera okerrenean, enplegu tasa baxuena baitu eta langabezia tasa altuena. Gipuzkoan, ordea, enplegu tasa altuena erregistratzen da eta langabezia tasa baxuena. Araba erdian kokatzen da.

## DATU OROKORRAK

Hiruhileko honetan EAEko enplegu tasa %68,33 izan da, hau da, %72,01 gizonezkoen artean eta %64,67 emakumezkoen artean, sexuen arteko diferentzia 7,3 puntukoa delarik. Hiruhileko honen amaieran 940.300 enplegatu zeuden, 493.500 gizonezko eta 446.800 emakumezko. Langabezia tasa, aldiz, %10,14 izan da, txikiagoa gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino (%9,47 gizonezkoetan eta %10,87 emakumezkoetan, hau da, 1,4 puntuko aldea). Hiruhilekoaren amaieran 106.100 langabetu ziren, 51.600 gizonezko eta 54.500 emakumezko.

Lurralde historikoka, enplegu tasa baxuena Bizkaiak du (%67,01) eta altuena, aldiz, Gipuzkoak (%69,81), bien arteko diferentzia 2,8 puntukoa izanik. Hiruhilekoaren amaieran 143.900 enplegatu dira Araban, 484.200 Bizkaian eta 312.300 Gipuzkoan. Langabezia tasa dela eta, Bizkaia da tasa altuena duen lurraldea (%11,56) eta Gipuzkoa, berriz, baxuena duena (%7,69), bien arteko aldea 3,9 puntukoa da. Araban 17.000 langabetu zeuden, Bizkaian 63.300 eta amaitzeko, 26.000 Gipuzkoan.

Jarduera sektoreen arabera, pertsona enplegatuei dagokienez, lehen sektorea da pisu gutxien duena, hau da, bertan 11.100 enplegatu daude, okupatu guztien %1,18, hain zuzen. Pisu gehien duen sektorea, aldiz, zerbitzuen sektorea da, okupatuena %71,49%, bertan 672.200 enplegatu dira. Bestalde, industria sektorean 206.700 pertsona enplegatu dira eta eraikuntza sektorean 49.900.

Adin tarteen arabera, enplegu tasa altuena 35-44 urte arteko adin tarteari dagokio (%83,08), 278.800 enplegatu, eta enplegu tasa txikiena, aldiz, 16-24 urte arteko adin tarteari dagokio (%21,17), 35.500 enplegatu. Langabezia tasari dagokionez tasa txikiena erakusten duen adin tarteak 45-54 urte artekoena da, %8,35 tasa (25.500 langabetu), aldiz, langabezia tasa altuena duen adin tarteak, berriz, 16-24 urte artekoena da, %20,76ko tasa (9.300 langabetu).

## HIRUHILEROKO BILAKAERA

Hiruhileko honetan okupazioa hazi egin da 23.400 pertsonetan, %2,6. Emakumezkoen artean 15.200 pertsonako igoera izan da (%3,5) eta gizonezkoen artean, berriz, 8.200 pertsonako igoera (%1,7). Langabezia, aldiz, murriztu egin da 10.400 langabetuetan, 8,9%. Emakumezkoen artean jaitsiera 7.400 lagunekoa izan da (%-12) gizonekoetan, ordea, 3.200 laguneko jaitsiera izan da (%-5,8).

Lurraldean artean langabeziari dagokionez bilakaera hobereana izan duena Araba izan da, bertan jaitsiera izan delarik, %11,46ko jaitsiera, hain zuzen. Bilakaera okerrenea Bizkaiak izan du, non %-7,32 jaitsi den. Okupazioa dela eta, bilakaerarik onena Arabak izan du, non igoera %4,2 izan da. Bilakaera okerrenea, berriz, Gipuzkoak izan du non %1,17 igoera izan duen.

Jarduera sektoreen arabera bilakaera hobereana izan duena zerbitzuen sektorea izan da, okupazioa 19.300 pertsonatan hazi da; bilakaera apalena, berriz, eraikuntza sektoreak izan du, okupazioa 200 pertsonatan murriztu da bertan.

Adin tarteen arabera, okupazioari dagokionez, bilakaera hobereana izan duen adin tartea 55-64 urte artekoa izan da, bertan okupazioa %6,09 hazi delarik (10.000 pertsona gehiago). Bilakaera okerrenea 35-44 urte arteko adin tartea izan du, bertan okupazioa %1,9 murriztu da. Langabezia tasari dagokionez, 35-44 urte arteko adin tartea izan da ondoen eboluzionatzen duena, hau da, %12,84ko jaitsiera (4.200 langabetu gutxiago) izan du. Bilakaera apalena izan duen adin tartea 16-24 urte artekoa izan da, bertan langabezia %13,41 hazi baita.

## URTEARTEKO BILAKAERA

Aurreko urteko datuekin alderatuz gero okupazioa hazi egin da 17.100 pertsonatan, %1,9 hain zuzen. Emakumezkoen artean igoera 7.200 lagunekoa izan da (%1,6), gizonezkoen artean, aldiz, igoera 9.900 lagunekoa izan da (%2). Hala, langabezia murriztu murriztu egin da 7.800 langabetu, %6,8. Emakumezkoen artean igoera langabetukoa izan da (%0), gizonekoetan, ordea, jaitsiera 7.900 langabetukoa izan da (%-13,3).

Lurraldean, langabeziari dagokionez, bilakaerarik hobereana izan duena Gipuzkoak izan du %12,46ko jaitsierarekin. Bilakaera apalena Bizkaiak izan du, %4,24 murriztu delarik langabezia. Okupazioa dela eta, bilakaera hobereana Arabak izan du, non okupazioa %3,67 hazi den. Bilakaera apalena, berriz, Gipuzkoak izan du non %1,36 hazi den.

Sektoreen arabera, okupazioari dagokionez, bilakaera hobereana izan duena industria sektorea izan da non okupazioa 9.200 enplegutan hazi den eta bilakaerarik apalena, berriz, lehen sektoreak izan du, enplegu kopurua 100 enplegutik hazi delarik.

Adin tartekak, okupazioari dagokionez, bilakaera hobereana izan duen adin tartea, aurreko urtearekin alderatuz gero, 55-64 urte artekoa izan da, bertan okupazioa %6,09 hazten delarik (10.000 enplegatu gehiago). Bilakaera apalena izan duen adin tartea, aldiz, 35-44 urte artekoa izan da, bertan okupazioa %1,9 murriztu delarik. Urtearteko langabezi tasaren bilakaerari dagokionez, 35-44 urte arteko adin tartea izan da bilakaera hobereana izan duena %12,84ko jaitsiera batekin (4.200 langabetu gutxiago). Bestalde, bilakaera apalena izan duen adin tartea 16-24 urte artekoa izan da, bertan langabezia %13,41 hazi baita.

**DATU OROKORRAK****SEXUAREN ARABERA**

		Tasa	Guztira
Okupazioa	guztira	68,33	940.300
	gizonezkoak	72,01	493.500
	emakumezkoak	64,67	446.800
Langabezia	guztira	10,14	106.100
	gizonezkoak	9,47	51.600
	emakumezkoak	10,87	54.500

**LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA**

		Tasa	Total
Okupazioa	Araba	69,76	143.900
	Bizkaia	67,01	484.200
	Gipuzkoa	69,81	312.300
Langabezia	Araba	10,57	17.000
	Bizkaia	11,56	63.300
	Gipuzkoa	7,69	26.000

**ADIN TARTEAREN ARABERA**

		Tasa	Total
Okupazioa	guztira	68,33	940.300
	16-24 urte	21,17	35.500
	25-34 urte	77,35	164.300
	35-44 urte	83,08	278.800
	45-54 urte	80,74	280.000
	55-64 urte	57,60	174.300
Langabezia	guztira	10,14	106.100
	16-24 urte	20,76	9.300
	25-34 urte	12,33	23.100
	35-44 urte	9,27	28.500
	45-54 urte	8,35	25.500
	55-64 urte	10,06	19.500

**OKUPAZIOA SEKTOREAREN ARABERA**

		Ocupados	%
Datu orokorrak	lehen sektorea	11.100	1,18%
	industria	206.700	21,98%
	eraikuntza	49.900	5,31%
	zerbitzuak	672.200	71,49%

hiruhilabetea	lehen sektorea	saldo	800
		evol %	7,77%
	industria	saldo	3.500
		evol %	1,72%
	eraikuntza	saldo	-200
		evol %	-0,40%
	zerbitzuak	saldo	19.300
		evol %	2,96%
urtea	lehen sektorea	saldo	100
		evol %	0,91%
	industria	saldo	9.200
		evol %	4,66%
	eraikuntza	saldo	2.500
		evol %	5,27%
	zerbitzuak	saldo	4.900
		evol %	0,73%

BILAKAERA			Paro	Ocupación	Actividad
<b>GUZTIRA</b>					
hiruhilabetea	saldo		-10.400	23.400	13.000
	evol %		-8,93%	2,55%	1,26%
urtea	saldo		-7.800	17.100	9.300
	evol %		-6,85%	1,85%	0,90%
<b>SEXUA</b>					
hiruhilabetea	gizonezkoak	saldo	-3.200	8.200	5.000
		evol %	-5,84%	1,69%	0,93%
	emakumezkoak	saldo	-7.400	15.200	7.800
		evol %	-11,95%	3,52%	1,58%
urtea	gizonezkoak	saldo	-7.900	9.900	2.000
		evol %	-13,28%	2,05%	0,37%
	emakumezkoak	saldo	0	7.200	7.200
		evol %	0,00%	1,64%	1,46%
<b>LURRALDE HISTORIKOA</b>					
hiruhilabetea	Araba	saldo	-2.200	5.800	3.600
		evol %	-11,46%	4,20%	2,29%
	Bizkaia	saldo	-5.000	14.100	9.100
		evol %	-7,32%	3,00%	1,69%
	Gipuzkoa	saldo	-3.000	3.600	600
		evol %	-10,34%	1,17%	0,18%
urtea	Araba	saldo	-1.200	5.100	3.900
		evol %	-6,59%	3,67%	2,48%
	Bizkaia	saldo	-2.800	7.900	5.100
		evol %	-4,24%	1,66%	0,94%
	Gipuzkoa	saldo	-3.700	4.200	500
		evol %	-12,46%	1,36%	0,15%
<b>ADIN TARTEAK</b>					
hiruhilabetea	16-24 urte	saldo	1.100	900	2.000
		evol %	13,41%	2,60%	4,67%
	25-34 urte	saldo	-2.300	2.500	200
		evol %	-9,06%	1,55%	0,11%
	35-44 urte	saldo	-4.200	-5.400	-9.600
		evol %	-12,84%	-1,90%	-3,03%
	45-54 urte	saldo	-1.800	10.900	9.100
		evol %	-6,59%	4,05%	3,07%
	55-64 urte	saldo	-600	10.000	9.400
		evol %	-2,99%	6,09%	5,10%
urtea	16-24 urte	saldo	1.100	900	2.000
		evol %	13,41%	2,60%	4,67%
	25-34 urte	saldo	-2.300	2.500	200
		evol %	-9,06%	1,55%	0,11%
	35-44 urte	saldo	-4.200	-5.400	-9.600
		evol %	-12,84%	-1,90%	-3,03%
	45-54 urte	saldo	-1.800	10.900	9.100
		evol %	-6,59%	4,05%	3,07%
	55-64 urte	saldo	-600	10.000	9.400
		evol %	-2,99%	6,09%	5,10%

Iturria: Eustat -BJA. LANBIDereantzako fitxategi zehatza

(\*) Zenbait datu zertxobait aldatzen dira EUSTATEk argitaratutako datuekin alderatuz gero biribildu egin direlako jasotako datuak. Horrez gain, aldaketa nabarmen gehiago ere ikus daitezke; horren arrazoia da dokumentu honetan ez daudela jasoak, hiruhileko bakoitzaren datuak argitaratu ondoren, EUSTATEk jasotze irizpideen gainean berriro egindako kalkulua.

Elaborazioa: LANBIDE - Kabinete Teknikoa